



OHARRA: 1/2020

GAIA: AMATASUNA, AITATASUNA ETA EDOSKITZEA

1.- GURASO-BAIMENAK

		2020	2021
	Ama biologikoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa
Oinarrizko araudiko nahitaezko zatia	6 aste	4 aste	6 aste
Oinarrizko araudiko borondatezko zatia	10 aste	8 aste	10 aste
GKEak hobetutako zatia	2 aste	6 aste	2 aste

➤ **Baimena jarraian hartzen bada:** Aldez aurreko baldintza gabe.

➤ **Baimena zatika hartzen bada:** Baldintzak:

1. Guraso biek lan egin behar dute
2. Biek errespetatu behar dute **nahitaezko zatia**
 - a. Ama biologikoaren kasuan 6 aste jarraian
 - b. Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa **EZ DEN** gurasoaren kasuan 4 aste jarraian (2021ean 6 aste izango dira)
3. Nahitaezko asteak igarotakoan gainontzeko asteak nahi dituztenean eskatu ahal izango dituzte beti ere baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a. 15 eguneko aurreabisua. Baimen epe bakoitza gozatu baino **15 egun baliiodun lehenago** egin behar da eskaera edota eskaera bakarrean baimena gozatu den epe guztiak jakinarazi beharko dira.
 - b. Baimena nahitaez **asteka** hartu beharko da, gehienez umeak 12 hilabete bete arte.
 - c. **Ama ez den gurasoaren kasuan (aita), gozatzeko gelditzen zaizkion borondatezko 8 asteak** ezin izango ditu gozatu amaren nahitaezko 6 asteak igaro arte.
 - d. Baimena zatika hartzen denean eskaerarekin batera Gizarte Segurantzaren Ebazpena aurkeztu beharko da (salbuespen gisa baimena zatikatzeke Gizarte Segurantzaren aurkeztutako eskaera) eta beste gurasoaren bizitza laborala, Hezkuntza Saileko langilea ez den kasuetan.



Guraso biek hobetutako asteak oinarrizko araudiko azken borondatezko astearen ondoren hartu beharko dituzte, jarraian.

2.- ORDEZKOAK: HOBETUTAKO ASTEAK HARTZEA.

- Ordezko gisa izendatutako langileak, aurrez jaiotzagatiko baimen eskubidea sorrarazteko inguruabarrak gertatu badira, hobetutako asteak izendatua izan denetik gozatuko ditu.
- Hobetutako asteak jarraian hartu behar dira, borondatezko azken astearen ondoren. Ordezkoari hobetutako asteak gozaten ari dela kontratua amaitzen bazaio, hartzeko gelditzen zaion denbora hurrengo kontratuan hartu beharko du. Hau da, hobetutako astei dagokien denbora amaitu arte ez da bere lanpostura itzuliko.
- Orokorrean asteka hartuko da. Izendapena aste bete baino gutxiagorako denean, izendapenaren azken eguna hartu beharko da muga bezala.

3.- ALDI BATERAKO EZINTASUN EGOERA JAIOTZAGATIKO BAIMENEAN

Aldi baterako ezintasunak **ez ditu** nahitaezko asteak, borondatezkoak eta hobetutako asteak eteten.

4.-EDOSKITZEA

4.1.-Aukera.

Edoskitzea ze modalitatetan gozatuko den **nahitaezko asteak bukatu baino lehen** aukeratu behar da. Horretarako dokumentu honen hasieran dagoen taula hartuko da kontuan.

Modalitateak: edoskitze metatua (egun osoetan) edota umeak 12 hilabete bete arte jardunaldia egunean ordu bete murriztea.

Eskaera egindakoa ezin da aldatu.

4.2.- Gozatzea.

Edoskitzea honela hartu ahal izango da:

- **Jarraian** hartutako baimena amaitzerakoan (18 asteak amaitzen direnean, jarraian)
- Edo nahitaezko zatia amaitzerakoan, baimena **zatika** hartzea erabaki bada.
- Ama eta ama ez den beste gurasoaren eskubide subjektiboa izanik guraso biek edoskitze metatua aldi berean har dezakete hala nahi izanez gero.



4.3.- Modalitateak.

- **Lantokitik ordu bete alde egitea, bi zatitan banatu ahal izango da.**
 - Nahitaezko aldia amaitzean (**zatika hartutako** jaiotzagatiko baimenaren kasuan) edo 18 asteak amaitzean **hartuko da** (jarraian hartutako jaiotzagatiko baimenaren kasuan).

- **Metatutako edoskitzea.** Edoskitze-denboraren orde, ordaindutako baimena hartzea dagokion denbora lanaldi osoetan metatuta.
 - **Jaiotzagatiko baimena amaitzerakoan gozatuko da.** (orokorrean, 18 aste).
 - Ama biologikoaren kasuan: hobetutako asteak amaitutakoan, jarraian. (18)
 - Edoskitze metatua eskatzerakoan eskatzaileak **nahitaez jakinarazi** beharko ditu umeak 12 hilabete bete arte hartuko dituen lizentzia, baimen, hartu gabeko oporrak eta eszedentziak kalkulua ondo egin ahal izateko.

Uztaila laneko hilabete gisa hartuko da baimenak kalkulatzeko.

4.4.- Edoskitze metatuaren kalkulua. Edoskitze metatuaren kasuan, oro har, **24 egun jarraian** hartu ahal izango dira. Hala ere, beste baimen batzuk badaude (aurreko ikasturteetan hartu gabeko oporrak, ezkontzak, norberaren gauzak...), egun horiek kalkulutik kanpo utziko dira.

4.5.- Ordezkoak: edoskitzea gozatzea (ikasturte osoko lanpostu hutsa betetzen ari EZ denean).

Ordezkoak **egunean ordu betez murriztuko** du bere jardunaldia umeak 12 hilabete bete arte. Ordu hori bi zatitan banatu ahal izango da.

4.6.- Aldi baterako ezintasuna edoskitzea gozatu bitartean

Ez du edoskitzea eteten.

5.- Haurdunaldi subrogatua

- EPOE-EBEPen 49.b) artikulua arabera, nazioarteko lekualdaketagatiko baimena eskatzeko, baimena eskatu duen pertsonaren semea edo alaba jaiotzeagatik nazioarteko lekualdaketa beharrezkoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da. Gehienez bi hilabeteko baimena emango da eta aldi horretan oinarritzko ordainsariak baino ez ditu jasoko.
- Eskatzaileak lekualdaketa egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du. Frogagiri gisa, hegazkin-txartelaren bidez egiaztatzea onartzen da, beste agiria batzuk aurkezteko aukera baztertu gabe.



- Aitatasun-baimenari dagokionez, ama ez den gurasoari honako hauek aplikatuko zaizkio: 4 asteko nahitaezko zatia, 8 borondatezko aste eta 6 aste hobetu 2020an eta 6,10 eta 2 aste, hurrenez hurren, 2021ean.

Vitoria-Gasteiz,, 2020ko otsailaren 21a.

JON AGIRRE HUERGA

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

